

HOT BELT

Maddalen, Hegoa, Laura, Haizea eta Marrubi gara, Antigua Luberriko batxillergoko ikasleak. Denbora asko etxetik kanpo igarotzen dugunez, proiektu hau bururatu zitzaigun: Gerriko bat da, bai sabelaldean, bai obulutegi aldean kokatu daitekena. Beroa igortzen duten poltsek betetzen dute gerrikoak dituen poltsikoak.

Proiektuaren hasieran, emakumeok egunerokotasunean sumatzen dugun behar bat asetzen duelako aukeratu genuen ideia hau, hilerokoa dugunean oso zaila egiten zaigulako normaltasunez egunean zehar aritzea. Zure egitekoekin jarraitzen ahalegindu zaitezke modu errazago batean gure produktua erabiliz, zenbaitetan mina sentitu izanagatik etxean geratu beharra izaten delako.

Gizonezkoentzako ere tripako mina duten egun horietan erabilgarria izan daiteke.

Gure enpresaren bilakerak arrakastatsua izan behar duela kontuan hartuz, gorputzeko beste atal guztietara ere egokitzea aproposa dela iruditu zaigu, adibidez belaunean lesio bat izanez gero, gerrikoa belausaldera egokitu daiteke eta bai bero edo hotza igorri.